



HIRIRA

GIDA DIDAKTIKOA 2024

EDUKIAK

Sarrera

Idea orokorra

Helburuak

Obra

Sinopsia

Hitzak

Hizkuntza artistikoa

Eszenaratze lana

Sorkuntza prozesua

Jarduera proposamena

Harrera

1. jarduera: Nondik hasiko gara eraikitzen?

2. jarduera: Beldurrak

3. jarduera: Biztanleak eta helduak

4. jarduera: Espazioa

Itxiera

Fitxa teknikoa

Sarrera

Ideia orokorra

Hirira proiektuaren planteamendua umeen aurreiritzirik gabeko ikuspegiak herritarren parte-hartze prozesuetan duen garrantzia nabarmentzeko nahia eta beharretik jaio da. Gizartearen parte funtsezkoa diren heinean, espazio publikoak eraldatu eta sortzeko izan ditzaketen ideia eta proposamenak alde batera uztea gizarte eta kultura galera ordezkazina litzateke.

Hirira proiektuak *Itsasotik eskolara* proiektuak irekitako bidea jarraitu nahi du, 79. Donostiako Musika Hamabostaldiaren (2018) Haurren Egunean estreinatua. Gisa honetako haur operak osatu eta lantzeko eredutzat hartzen da, bertan umeak obraren sorkuntzaren alderdi eta prozesu guztien parte izan baitziren. Gainera, zeharkako planteamendutzat jotzen da, ez baitira soilik alde artistikoarekin zerikusia duten kontuak zaintzen, baizik eta baita jasangarritasunarekin eta gizarte eta kultura arloarekin zerikusia duten osagaiak.

Helburuak

Proiektu honek motibazio ugari dituenez, eta horren gauzatzeak gizarte-espekto askotarikoan eragina duenez, hainbat helburu lortu nahi ditu:

1

Herritarren gizarte eta kultura parte-hartze prozesuetan umeen iruditeriak duen garrantzia aldarrikatzea.

2

Musika eta herritarren heziketa batzen dituzten zeharkako planteamenduak egitea, aldi berean gizarte eta kultura eraldaketarako benetako proposamenak zehaztuz.

3

Parte hartuko duten umeei euren gaitasun artistikoak adierazi eta garatzeko espazioa eskaintzea, horiek bere horretan aintzat hartu daitezen.

4

Ume entzuleei obra erakargarria proposatzea, zeinean euren burua identifikatu dezaketen ez soilik kontatzen duen istorioagatik, baizik eta baita antzezten dutenengatik ere, musika jarduerara hurbil daitezen eta parte hartu dezaten modu zuzenean sustatuz.

5

Umeen irudimena eta sormena aintzat hartu eta zabaltzea, obra bera sortzeko eta ekoizteko prozesuaren parte ere izanik.

OBRA

Sinopsia

Paul Hindemithen obra gidari dela, *Hirira* umeen begiradatik jaiotzen den ikuskizuna da, hiria sormenez eta gogotsu behatzen duena. Easo Abesbatzako umeek sortutako opera da, eta bertan askatasunez eraikitzen den alegiazko hiri baten zirrikituak erakusten dira. *Hirira* proiektuak bizi dugun tokia pentsatzeko, errealitatea anitzak marrazteko eta gure mapak osatzeko gonbit egiten digu.

Wir bauen eine Stadt, Paul Hindemith (1895-1963)

1930an idatzia eta umeek eta umeentzat interpretatua izateko pentsatua, *Gebrauchsmusik* (“musika erabilgarria” edo “erabilia izateko musika” bezala itzuli izan da) delakoari lotzen zaio askotan. Haatik, Paul Hindemithen termino hau aho betez erdeinatu zuen, uste baitzuen “termino inozoa” zela.

Edonola ere, eta Hindemithen berak idatzi zuen moduan, obra honen helburua umeek ikas dezaten eta musikan trebatu daitezten tresna bilakatzea da, eta ez publiko helduari denbora-pasa eskaintzea. Obraren egitura eta ideia nagusiak moldaketa guztiz libre ahalbidetu eta laguntzen du; horregatik, *Hirira* proiektuan konpositorearen hainbat obra entzungo ditugu:

Wir bauen eine Stadt

Tuttifantchen 1, 4, 7, 11, 15

Echo

Suite für Klavier op. 26, 1

Stücke für Flöte allein, 4

Sonate für Klavier und Violine op. 11

Hitzak

Jatorrizko testua Robert Seitz idazleak sortutakoa da, baina *Hirira* proiektuan aldatu egingo da, obran zehar euren eta gu guztion hiria eraikitzen duten abeslarien ideiak eta iruditeria islatu ditzan. Horiek jasotzeko, eta parte-hartze teknikak direla medio, 2019ko otsailean hasi zirenak, abesbatzen kide diren gaitasun sozial eta sormenezkoak lantzen dituzten tailerrak burutu dira.

Helburu nagusia hiria bere alderdi guztietan –hirigintzari dagozkionak, sozialak, kulturalak, zibikoak...– birplanteatzen duten proposamen errealak osatzea da. Horiek, aldi berean, modu esplizitu zein inplizituan agertuko dira testuetan eta obraren garapen eszenikoan. Xedea, hortaz, haurren gizartean nagusi diren behar eta interesetatik eratortzen denari forma bisuala eta diskurtsiboa ematea da, gizartea bere horretan birpentsatzen ere laguntzen dutenak.

HIZKUNTZA ARTISTIKOA

Eszenaratze lana

Hirira proiektuak istorio bat bizi, kantatu, entzun eta pentsazeko forma desberdinak miatzen ditu. Keinua, irudia, objektuak eta talde-mugimendua eszenak sortzeko eragileak izango dira. Honela, lan artistiko-pedagogikoak abeslari taldeak kantua, poetika eta antzerki-mugimenduaren jolasa batzeko esperientzian oinarritzen den sorkuntza prozesua garatzea du helburu.

Eszenen testua eta mugimendu-eszenak bat-bateko elkarrizketetatik, irudimenezko idazketa ariketetatik eta mugimendua, hitza eta kantua erabiltzen duten inprobisazioetatik sortzen dira. Ariketa horietatik abiatuz hasten dira eszenak agertzen.

Bidaiatzera gonbit egiten digun umeen opera da. Hasieratik saiatzen gara ikuskizun hau espaziotik egiten den bidaia izan dadin, baita publikoak ere ekintzaren une batzuetan parte hartu dezan.

“Keinua, irudia, objektuak, taldearen mugimendua... izango dira eszenen sorkuntzarako eragileak.”

Mafalda Saloio, zuzendari artistikoa

Sorkuntza prozesua

Sorkuntza eszenikoaren prozesua bi hilabetez luzatu da, Easo Eskolania eta Easo Gazte abesbatzen kide diren 8 eta 16 urte bitarteko 35 haurrez osatutako talde batekin egindako entsegu trinkoetan egituratuta. Lanaldiaren lehenengo fasean sormenezko dantza, talde-mugimendu teknikak, inprobisazioa, clown eta objektuen maneiua biltzen dituen entrenamendu fisiko sendoa egiten da. Aurretiko lan hau oso funtsezkoa suertatzen da abeslarien taldeak gorputza sortzeko prest izan dezan, eta baita bigarren fasean proposatzen diren erronka guztiak modu librean sentitzeko.

Bigarren fasean, kantuaren gaineko mugimendua inprobisatzen hasten dira. Erronkaz betetako fasea da, zeinak taldea prestatzen duen eszenak eta ikuskizunaren unibertsoa bera deskubritzen joan dadin. Lan honen helburu nagusia taldeak kantua gorputz organikotik bizitzea da, bakoitzaren barrenetik ateratzen diren mugimenduak sortzeko aske. Saioetan jolasa da beti lanaren ardatza, testua eta musika adierazteko modu berriak deskubritzearen askatasuna ematen duena. Prozesu honetan bakoitzak bere gaitasun eta zailtasunetatik lan egitea da garrantzitsuena, arriskuak hartzeari ere tokia utziz. Bakoitzaren mugimendua miatzea da asmoa, eta baita energia eta gorputz askotariko horien baterako entzutea. Taldekide bakoitzak eginkizun desberdinak bete ditzake: denek dantzatu, hitz egin eta abestu dezakete; lanaren esentzia nahasketa horretan datza.

JARDUERA PROPOSAMENA

EASO Abesbatzako hurrek beren benetako hiriaz zein haien hiri idealaz hausnartu eta pentsatu zuten bezala, zuen ikasgelan ere lan hori bera errepikatzea proposatu nahi dizugu.

Horretarako, honako jarduera hauek egiteko gonbita luzatzen dizugu. Jarduera bakoitzarekin batera, Leipzig-eko hurrek egingako bertsioaren grabaketa baten zatiak izango dituzu. Letra berriak sortzen eta asmatzen ere ausartu zaitezketel!

Baina... non dago Leipzig hiria? ¡Mapan kokatu beharko dugu lehenik!



<https://www.youtube.com/watch?v=6VuLnTHhD68>

1

NONDIK HASIKO GARA ERAIKITZEN?

Irakasleak ikasleei luzatzen dien galdera: zein da hiri baten eraikuntza hobekien errepresentatzen duen jolasa edo jostailua? Zein tresna behar dugu? Arbelan apuntatzen ditugu ikasleen erantzunak.



<https://www.youtube.com/watch?v=QytnQcxCpkk>

2

BELDURRAK

4 - 5 ikasleko taldeetan. Talde bakoitzak hirian sentitu duen beldur bat identifikatu eta paper batean idazten du. Paper horiek taldez trukutzen dira, eta talde bakoitzak irtenbide bat aurkezten dio beste ikaskide taldeak identifikatu duen beldur horri; aurkezpenak egiten dira.

JARDUERA PROPOSAMENA



<https://www.youtube.com/watch?v=QytnQcxCpkk>

3

BIZTANLEAK ETA HELDUAK

Talde bakoitzak pertsona helduen kolektibo bat aukeratzen du, lanbidea dela-eta hiri baten funtzionamendurako garrantzitsutzat jotzen duena. *Post-it*-etan apuntatzen dira eta irakasleak jaso egiten ditu. Ikasleekin eztabaida eginez, gelaren balorazioen araberrako *ranking* bat osatzen da.



<https://www.youtube.com/watch?v=gSzplxbeztU>

4

ESPAZIOA

Orri zuri batean, ikasle bakoitzak gustuko ez duen hiriko gune edo elementu bat marrazten du. Amaitzean, orriari buelta eman eta arazo horren konponbide bat marrazten du, edo nola izatea gustatuko litzaiokeen. Ondoren, erakusketa erronda bat egin daiteke.

Amaitzeko, taldekako hausnarketa egin dezakezue.

- Nire hiria gustoko dut? Zergatik?
- Zer aldatuko nuke?
- Zer egitea gustatuko litzaidake, orain egin ezin dezakedana?

FITXA TEKNIKOA

Proiektuaren zuzendartiza eta koordinazioa

Gorka Miranda

Sorkuntza, eszena eta arte zuzendaritza

Mafalda Saloio

Musika-zuzendaritza

David de Oliveira

Eszenografia

Enrique Sancho (Arte_Diseño_Arquitectura)

Videomapping

Jaime de los Ríos

Argiztapena

David Alkorta

Abesbatzak

Easo Eskolania, Easo Gazte

Pianoa

David de Oliveira

Klarinetea

Juan Miguel Amador

Perkusioa

Nerea Quincoces

Biolina

Marianne Brandstettner

Koreografia laguntzailea (15. zb)

Marina Eskisabel

Jantziak

Clara Virgili, Fanny Alonso, Ainara Antxia, Nahia Salaberria

Musika-moldaketa

Josu Elberdin

Hitzak eta parte-hartze arduraduna

Marta García

Parte-hartze tailerrak

Maddi Asenjo, Lide Errasti, Lorea López

Ekoizpena

Donostiako Musika Hamabostaldia

Babeslea

Gipuzkoako Batzar Nagusiak

Laguntzaileak

Kutxakultur

Arkitektura Goi Eskola Teknikoa (UPV/EHU)

Emaus Gizarte Fundazioa

Coro Easo Abesbatza

